

3.2 ELKARGUNEA

Atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza ikastaroa. (Excellence in Basque Studies) (W)

Zuzendaria:

Mari Jose Olaziregi.

Etxepare Euskal Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia-San Sebastián.

Lekua:

Miramamar Jauregia. Donostia-San Sebastián.

Helburuak:

Euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea du helburu ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAK. Gaur egun, 25 irakurletza ditu mundu osoko 25 unibertsitateetan, hau da, euskara eta euskal kulturako 25 irakasle, eta kopuru hori gorantz joango da hurrengo urteetan irakurle lanpostuez gain sortuko diren euskal katedrei esker. Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizuneko formazioa sendotu nahi du, eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo desberdinetako adituak gonbidatu ditugu. Hortik "Excellence in Basque Studies" izenburua, prestigiozko ikerlari eta irakasleek euskal ikasketei egindako ekarpena jaso nahi duelako ikastaro honek. Ikastaroan, euskararen irakaskuntzari buruzko metodologiaz gain, euskal kulturaren arlo desberdinei buruzko informazioa eta bibliografia eskaini nahi da (literatura, bertsolaritza, ikasketa kulturalak, zinema, antzerkia...). Ikastaroa irekita dago matrikulatu nahi duen edonorentzat.

Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzaz.

Matrikula-prezioak: maiatzaren 31ra arte: 55 €. Ekainaren 1etik aurrera: 66 €.

Balio akademikoa: 20 ordu.

Hizkuntza ofiziala: euskara.

Europar jarduera

EGITARAUA

Uztailak 14

- 9:00etan Elkargunearen irekiera Kultura Sailburuarekin eta EHUko errektore jaunaren agurrarekin
- 9:15etan "Los lectorados del siglo XXI en un marco global. Reflexiones en torno a los nuevos objetivos"
JOAN RAMON RESINA.
Stanford University. California. Estatu Batuak.
- 10:30etan Etenaldia
- 10:45etan "Euskal ikasketa kulturalak"
JOSEBA ZULAIKA.
Center for Basque Studies. University of Nevada. Reno. Estatu Batuak.
- 12:00etan Etenaldia
- 12:15etan "Euskal Zinema mugaz gaindi"
JOXEAN FERNANDEZ.
Euskadiko Filmatagia. Donostia-San Sebastián.

- 13:30etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa
- 16:30etan Mahaingurua: “Euskararen eta Euskal Kulturaren irakaskuntza eremu anglosaxoian: Reno, Boise eta Birminghameko esperientziak”
NERE LERE.
Boise State University. Idaho. Estatu Batuak.
KATE CAMINO.
Center for Basque Studies. University Of Nevada. Reno. Estatu Batuak.
XABI PAYA.
University of Birmingham. Erresuma Batua.

Uztailak 15

- 9:15etan “Euskal kulturaren irakaskuntzarako baliabideak: bibliografia eta adibide praktiko bat”
MARI JOSE OLAZIREGI.
AIZPEA GOENAGA.
Etxepare Euskal Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia-San Sebastián.
- 10:30etan Etenaldia
- 10:45etan “Ahozkotasanaren lanketa irakaskuntzan”
JOXERRA GARZIA.
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.
- 12:00etan Etenaldia
- 12:15etan “Euskararen irakaskuntza. Orientazio metodologikoak”
KINKU ZINKUNEGI.
HABE. Donostia-San Sebastián
- 13:30etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa
- 16:30etan Mahaingurua: “Euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza espainiako estatuan”
ARITZ GALARRAGA.
Universitat Autònoma de Barcelona. Barcelona.
MARIA COLERA.
Universitat de Barcelona. Barcelona.
KARLOS CID ABASOLO.
Universidad Complutense de Madrid. Madrid.